

# GOIKO SUBJEKTUA ETA BEHEKO SUBJEKTUA. IRUDIKAPENA ETA SUBJEKTIBOTASUNA JOSÉ MARÍA ARGUEDASEN ETA JOSÉ REVUELTASEN

**Mauricio Zabalgoitia Herrera**

*Universitat Autònoma de Barcelona*

mauricio.zabalgoitia@gmail.com

**Aipatzeko gomendioa** || ZABALGOITIA HERRERA, Mauricio (2013): "Goiko subjektua eta beheko subjektua. Irudikapena eta subjektibotasuna José María Arguedasen eta José Revueltasen lanetan" [artículo en línea], 452ºF. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 8, 144-155, [Kontsulta data: dd/mm/aa], < [http://www.452f.com/pdf/numero08/08\\_452f-mis-mauricio-zabalgoitia-herrera-eu.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero08/08_452f-mis-mauricio-zabalgoitia-herrera-eu.pdf)>

**Ilustrazioa** || Raquel Pardo

**Itzulpena** || Nerea Galarza Arana

**Artikulua** || Jasota: 22/05/2012 | Komite zientifikoak onartuta: 07/10/2012 | Argitaratuta: 01/2013

**Lizentzia** || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena** || Artikulu honek denboran hurbil dauden bi eleberri konparatzea du helburu, José María Arguedasen *Los ríos profundos* eta José Revueltasen *El luto humano*. Jarraitutasun zentralaren inguruan duten izaera oldarkorrek ekintza gertuko edo antzeko gisa *ikusaraz* ditzake, bai Historiaren aurrean, bai itxuraz txertatuta dauden literatur sistema nazionalen eta kontinentalen aurrean. Hala ere, eta subjektibotasun-komplexuekin eta irudikapen-muga batekin loturiko hausnarketen bitartez, adierazpen horiek ekintza desberdin gisa agertzen dira subjektu indigenekiko (baita subjektu herrikoi edo marjinalekiko ere) duten harremanari dagokionez; eta, halaber, dialektikaren, ideologiaren eta kontzientziaren bertsio espezifiko gisa.

**Gako-hitzak** || Konparatismoa | Dialektika | Irudikapena | Subjektibotasuna | Indigenak.

**Abstract** || In this article a comparative process is performed between two novels, *Los ríos profundos* by José María Arguedas and *El luto humano* by José Revueltas. Their breakthrough character around the central continuity would make them seem close or similar acts, either in front of History or in front of the national and continental literary systems, in which apparently are part. However, and through reflections related to subjectivity complex and a representation limit, these enunciations are shown as different acts in front of indigenous subjects (but also popular and marginal). As well, as specific versions of dialectics, ideology and consciousness.

**Keywords** || Comparatism | Dialectics | Representation | Subjectivity | Indigenous.

---

Julio Ortegarentzat, José María Arguedasen obra Peruko mapa dialogiko gisa uler daiteke; bertan, mundu guztiak hitz egiten du, eta haien nortasuna hitz egiten duten lekuak zehazten du. Hortaz, egilearen idazketa ordena naturaletik abiatutako (des)ordena sozial hierarkikoaren subertsio-prozesu luze gisa aurkezten da (cfr. Corrales, 2011). Nolanahi ere, beste instantzia batzuetatik, haren obra akats gisa ikusi nahi izan dute, irudikapen-prozesu batek ezarritako jarraitutasunarekiko desbideratze gisa, eta bide horretan, eleberria tresna paregabea litzateke kolonialtasunean eta sortze nazionalean zehar baztertu eta gutxietsi egin dituen subjektuen errealtatea islatzeko. Ohiko indigenismoaren aurrean—baina baita eleberri zentral eta limatar moderno batetik ere—, Arguedasen lanak, eta, batez ere, *Los ríos profundos* (1956) idatzi zuenetik aurrerakoak, arazo gisa ikusi izan dituzte, hain zuzen subjektibotasunen hizketak —*kitxuak kutsaturiko* espainiera hori— inork hitz egiten ez zuen hizkuntza baten lekuko direnean. Ortegarentzat, horixe da etorkizuneko hizkuntza, eta horrek dialektikan eta utopian pentsarazten digu. Hona hemen William Rowek perutarren obrari buruz dioena: «[Hay un aspecto] profético en la obra del peruano; una capacidad para hablar del futuro que vendría dada por un extraordinario esfuerzo de análisis e imaginación» (Rowe, 1996: 14).

Mexikon, badago zapal dutako subjektibotasun jakin batez arduratzeko *nahia* duen bestelako literatura bat, eta, horregatik, subjektibotasun hori —sublimaziotik eta kosifikaziotik askatuta— irudikapen literarioaren mailara eramaten duena, hura *hitz egiten* jarrita. Literatura hori, José Revueltas idazlearena, alegia, bigarren eleberri batek markatuko luke; lan horrek herrietako geografiara eramango gaitu, eta handik, XX. mendeko lehen erdialdeko Mexikoko hainbat pertsonaia *hizketan jarriko* ditu. Literatura mexikarra egituratu duten kritikariek «nobela berriaren» hastapenak ikusi dituzte obra horretan, baita indarra hartzen eta azaleratzen ari den kultura mestizo batenak ere. Baina, horretaz gain, zenbait subjektuen bat-bateko sarrera ere nabarmendu dute, duela oso gutxira arte kosifikaturiko hizketaren bitartez interpretatu zirenak eta horietara mugatuak; *tipo* berri horiek iraultza ondoko mexikartasunari dagozkio, zeinetan letratuak nekazal munduagatiko interesa zuen gizarte berri horrek nortasun nazionaleri kohesioa emango zioten subjektu guztiengan proiektaturiko katexi guztiak hustuko zituen.

Edonola ere, bai *El luto humano* (1943) lanean, bai *Los ríos profundos* eleberrian, irakurketarako gakoak aniztasun subjektiboa, kultura unibertsoen borroka, mendebaldar joerako jarraitutasun historiko-tenporalez bestelako jarraitutasunen aukera, mitoaren presentzia eta historiarekiko duen izaera subertsiboa eta narratzailearen pluraltasuna dira; dena dela, eta partekatzen dituzten antzeko beste hainbat puntu badaude ere, ez bata ez besteak ez dute leku bera betetzen kanon nazionalen, kontinentalen eta, are gehiago, literatura

irruptiboen, deszentratuen eta alternatiboen berri eman nahi izan duten hurbilketetan (Rama, Cornejo Polar, Lienhard).

Alabaina, *egituraren zentraltasunean*, edo kritika nazionalean edo kontinentalean, duen sartze-mailaz harago, Derridaren konstrukzioa hartuta, bi obra horiek partekatzen dutena, zerbait partekatzekotan, ordezkartza indigenaren muga batekiko, hala marjinala nola herrikoia, erantzun subertsiboa da. Egiaz muga hori behin eta berriz agertu izan da Latinoamerikako esperientzia literarioan, eta azpikontinentearen esperientzia aglutinatzeke edo kohesionatzeke irizpide argi eta probableena izan zitekeen. Horregatik ulertzen da bi eleberrietara jo daitekeela kartografia subjektiboak berreraikitzeke. Kartografiok zalantzan jarriko dituzte nortasun finakoak, *beren* indigenismo eta erregionalismo hurbileneen diskurtsoen ordena berregituratuko dute, eta kontakizun nazionalitateko eta haien hurbileneko literaturetako betiko *subjektu indartsu*, mestizo eta homogeenaren aurrean subjektu berriak kontrajarriko dituzte. Baina badago bi lanak elkartzen dituen beste puntu bat, beste jarraitutasun bateko esperientzia gisa agerrarazten dituenena. Zera da, haien lorpenean proiektu bat ezagutarazteko asmoa legokeela; etorkizuneko eraikuntza baten proposamena, edo dialektika *negatiboko* aldaeraren bat – Adornoren terminoa erabilita –, eta hura *sistemaren aurkako* egiazko aukera bilakatzea; batasun printzipioarekiko, omnipotentziarekiko eta *kontzeptuaren* nagusitasunarekiko errefusa (Adorno, 1990: 8). Nortasun hori berrestea, bi idazleentzat, ugaritasun zabala murriztea eta batasun bortitza onartzea litzateke. Batasun hori *beren ekintzen egile* diren banakoak balio axiologikoa duten izaki idealei kontrajartzen tematzen da, horrela bere dominazioa iraunarazteko.

Eta konparaziorako puntua litzateke, adibidez, letradun kultura baten parte izatearen ondorioz unerren batean gaintitu eta deszentratu egiten dituen errealitate bati aurre egin beharrean jartzen dituen subjektuen presentzia (Cornejo Polar, 1996: 839). Eta, hortik, antzekoak baina bateraezinak diren lanak direla erakusten duen ibilbideari ekin diezaiokegu; antzekoak dira subjektuen antolamendu- eta desantolamendu-printzipio zenbaitetan, haien hizketetan eta esperientzietan; baina kontrajarriak abian jartzen duten nozio dialektikoak inposaturiko muga berrien bitartez, baita materialtasun diskurtsibo, ideologiko eta historikoetatik eratorritako marjina horien bitartez ere. Latinoamerikako kolonialismo ondoko esperientziaren funtsezko momentu batean kokaturiko enuntziatu diren aldetik – subjektu jakin batzuen itxurazko *askapenarena* –, biek adieraziko lukete ez bakarrik nora eraman zuten dibergenteak izanagatik itxuraz antzekoak ziren bilakaera historikoek, baizik eta baita zer subjektuk osatuko luketen errealitate moderno nahasgarria, eta laster are konplexuagoa, dinamikoagoa eta heltzeko zailagoa izango zena. Eta, subjektu horien arteko harremanak ere agerian utziko lituzkete –«sus hablas elocuentes, con los suyos y en su mundo»

(Cornejo Polar, 1994: 220)– baina, baita errepresentazio-konplexu menderatzaileak, azkenik, ukatu ezin den desberdintasun anitzaz ezarriko lukeen harreman espezifikoa ere.

Mestizaje-kontakizun nazionalen batasuna ezegonkortzen duten kartografia subjektiboen aurkezpenari dagokionez, bi eleberriak ordura arte ezezagunak ziren kontzientzia eta kultura moduak azaleratzen dituzten egituratzat jo ditzakegu. Eta perutarraren lanak kultura subjektu anitz horiek, mestizoak edo migranteak izan, eta indigenatasunetik gertuago edo urrunago egon, nola hitz egingo zuten galdegiten duen bitartean, mexikarrarenak, eta, iraultza ondoko Mexikoko egoeraren berri *jakiten* duen une zehatzetik aurrera, nolabaiteko nahastea erakutsiko du *irudikatu nahi duen* nekazari-indioari dagokionez. Desordena hori konpontzen joan beharko da eleberriak aurrera egin ahala. Horregatik ezarriko du istorioen asmakuntza aldeztetik mugatzen duten marjina ideologikoen logika subjektiboari lotu beharko zaion tipologia bat. Marjina horiek, nekazari iraultzaile eta sozialista baten kontzientzia utopikoaren eraikuntzarekin bat, mestizajearen mutur baten eta bestearen artean dagoen tarte zabalean kokaturiko izakiok sailkatzea behartuko dute.

Eta Arguedasen kasuan ugaritasuna dena, Cornejo Polarren hitzetan «una explosión del sujeto», eta denboraren eta atzean gelditutako espazioen memoria gero eta intentsitate handiagoarekin gordetzeko eta haiek behin eta berriz infiltratzen den eta esperientziak modelatzen dituen bigarren bizi-horizonte bilakatzeko eragin paradoxikoa duena (Cornejo Polar, 1994: 209), Revueltasen kasuan anbigutasunaren, matxismoaren, gutxiagotasun-komplexuaren, heriotzarekiko axolagabetasunaren, gogogabetasunaren, ezkutatzearen eta asmakeriaren (Montoya, 2008) kategoriak berraktibatzen dituzten kontzientzien berregokitzapena da. Horiek guztiak, arraza ideia bati eta indigenatasunetik hurbilago dauden esperientzia historikoei loturiko mexikartasunaren funtsak dira, eta huts egin zuen kontzientzia iraultzailearen sarrerarekin baino ez ziratekeen ahulduko. Hortaz, letradun nekazari-indiarra, kulturaz, heziketaz eta sozialismoz jantzia, landa-eremuko nekazari-indiarrari kontrajartzen zaio. Revueltas kolonialtasunaren garaiko dikotomia zaharretara eta haien metafisikara itzuliko da; ez du hautsiko errealitatera desorekaturiko kontrakoen bitartez gerturatu behar duen dialektikaren oinarrian dagoen binarismoa. Azkenik, mexikar sozialismoaren inguruko bere proiektuak indiarraren asimilazioa ikusten du aukera bakar gisa. Baina indiar hori dagoeneko maltzurtze-prozesuan den indiarra litzateke, eta maltzurtze hori litzateke iraultza-prozesuaren egiazko aurpegiaren amaigabeko lana. Eta *El luto humano* lanaren atzean dagoen konplexu subjektiboa askoz ere indar handiagoz azaleraziko duena zera da, nola nekazari-indiar mota baten barbarismoa dagoeneko galbideratu duten kapitalismo bidegabeko baten indar higitzaileak. Eta bizimodu arkaikoari eta

---

erritualei indar are handiagoz loturik dagoen «kontzientzia oneko» nekazari-indiar bat nola bilakatuko den *menpekotasunaren menpeko*. Literatura homogenezatzaileek eta nekazaria subjektu ahul (baina kohesionatu) bilakatzeko joera duten literaturek ez dute, inola ere, boterearen berregituraketa hori erakusterik lortu.

Baina eleberri baten eta bestearen kontrajartze horretan alderdi benetan adierazgarri bat dago: narratzailearen ahotsa. Revueltasen kasuan hiru indiar-nekazari moten deskribapenak ideia-saiogilearen aginteari eusten dion instantzia batetik datoz, eta apezaren ikuspegiarekin osatzen dira, hura, oraindik ere, landa-eremuetako sektoreetan indarrean den kreolismoaren ordezkari den aldetik. Bestalde, *Los rios profundos* laneko Ernesto aukera aurreratu edo mestizoaren arbaso bikoitzen arteko kontziliazioaren koherentzia ezegonkor eta prekarioa gainditzen duen subjektu migratzaile gisa agertzen da, eta hortaz, bi tokitan egoteko gai da: «en el ayer y el allá, de un lado, y [en] el hoy y el aquí, de otro» (Cornejo Polar, 1994: 209).

Revueltasen konplexu subjektiboak, hortaz, indiar-nekazari progresista eta miserian, gosean eta gorrotoan murgilduriko izaki mexikar oinarritzko bat kontrajartzen ditu. Bilbean jada hilda dagoen indiar horrek lurra eraldatu nahi zuen; haren dotrinak «gizon berri bat» zekarren berekin, eta horixe da Latinoamerikako eta Mexikoko testuinguru horretako kritikaren zati handi baten nahia. Eta maila horretantxe uzten du ideologiak bere arrastoa, hortik errealitatea modelizatzeko (Asensi, 2011). Eta modernizazio desorekatuen zantzuak bietan ageri badira ere, mexikarraren lanean hierarkia berriak berehala ixten die bidea subjektu posibleei, eta modernitatearen aktore berrien –gatazkatsuak diren arren– izaerarekin lotzen ditu; perutarraren lanean, ordea, haien barru-barrura sartzeko ahalegina egiten da etengabe, haien zatiketa eta bi jarraitutasunen arteko jokaera jakin batzuek ekartzen dien desoreka azpimarratuta. Eta gure buruari galdetu beharko genioke, Revueltasen nekazari horietan *bi garai* batera bizi diren arren, eta modernitateko eta antzinako bizimoduko elementuak kontrajartzen diren arren, nola liteke haien beren buruaz eta besteaz duten kontzientzia zorigaitzoko sintesi eternal gisa aurkeztea, egonkorra den arren?

Itxura guztien arabera, Revueltasek europar ordena sinboliko bati eusten dio, baita Marxek *Der 18te Brumaire* lanean argi eta garbi identifikatu zuen, eta Spivakek (2009) bere lanean berreskuratu zuen, tradizio zaharrari ere. Irudikapena edo erretorika tropologia gisa aurkezten duen, eta hura limurtze gisa, edo «euskarri» batetik datorren eta «ordezkari» batengana doan hitzaldi gisa (Spivak, 2009: 58), aurkezten duen antzinako eztabaida da. Baina, zertarako limurtu behar dira subjektuak? Eta, nola izendatu behar dira, zer metafora eman behar zaie? Egilearen funtzioa, Revueltasen lanean, Marxek

*Der 18te Brumaire* lanean ikusten zuen interprete horrena da gehiago. Alegia, klase-kontzientziaz bustitako bozeramaile bat, kontzientzia horrek batzuetan ezberdintasunari eta besteetan berezitasunari erreparatzen diolarik, baina, betiere, arestian adierazitako irudikapen indigena-bazterreko-herrikoia ren muga bazter utzi gabe.

Zenbait pasartetan bi eleberriek antzeko gaiak jorratzen dituzten arren –bidaia bat, aginte-indarrek ordenatu nahi duten nolabaiteko nahaste subjektiboa, Elizaren eta haren apez kreolen rola, grebaren pasartea–, Peruko mende Erdiko errealitate subjektiboa Mexikokoarekin –eta indigena denarekiko batere korrelatiboak ez diren bere moduekin– kontrajartzen du, eta, gainera, indar modernizatzaileek, alde batetik, egitura epistemiko desberdinekin topo egitean, fikzionalizazioaren aukerak eremu oso bestelakoetara bideratu zituztela erakusten du. Perun, bai Churataren bai Arguedasen lanetan, bere gain esperientzia desberdinak –denbora eta jarraitutasun dibergenteetan kokaturikoak– hartzen dituen subjektu pluralak izaera anitza hartzen du, baita «dispersa, entreverada, capaz entonces—y por eso mismo— de abrir una amplia gama polifónica que incluye el sutil tejido de dos idiomas» (Cornejo Polar, 1994: 215). Baina, *El luto humano* lanean hitz egiten duen ahots mutakorrek ez du isiltasuna eta sekretua lortzen subjektu batetik bestera edo enuntziazio-instantzia batetik bestera igarotzean, batzuetan klase proletarioaren kontzientziaren azpiko moraletik urrun dagoen indiar-nekazari odolzalearen kontzientzian kokatuta; besteetan, aldiz, indiarrekin eta hari geratzen zaizkion praktika arkaikoekin zer egin ez dakien modernotasunaren indarrek bultzaturiko indiar-nekazariaren kontzientzian kokatuta, eta, azkenik, beste batzuetan, indiar iraultzaileago eta «akulturatuaren» kontzientzian kokatuta; hori bai, azken hori akulturatu duten indarrak marxismo teluriko eta nazionalarenak izanik. Eta horren arrazoia zera izan liteke, alde batetik, indigena puruenaren aurrean –hura samurtasunez eta indarkeriaz deskribatuko du, baina kanpotik, *kontzeptu* gisa– bere buruari jartzen dion muga horregatik, baita liberalismo kapitalistaren bestaldean kokatzeak ez duelako esan nahi subjektu indartsu eta zentratuaren, eta, sarritan, autoritarioa den eta jada irabazitako eta ondo eraikitako nortasun bat, Mexikoko landako subjektu sakabanatuetan ezarri *beharrekoa*, pitzatzeko batere prest ez dagoenaren posizioa bertan utzi behar denik (Cornejo Polar, 1994: 215). Eta Arguedasen kasuan, subjektu hori krisian jausten bada, Mexikon, aldiz, bere ordezkari rola indartu egiten duela dirudi –baina Marxen interprete bonapartetarren modura–, bere nortasunari eutsita –baita posizioari ere–, hori baita bere *existentziaren bermea*, Cornejo Polarrek esango lukeen legez (Cornejo Polar, 1994: 215).

Kontzientziarekin, ideologiarekin eta historiarekin loturiko gai batzuez harago –horiek bi idazleen diskurtsoa zeharkatu dute, zalantzarik gabe, bai garaian hurbil daudelako, bai proiektu nazionalen porrotarengatik eta indar modernizatzaileen zabalkundearengatik–,

irudikatzeko egintzarekin eta subjektibotasunarekin loturiko alde nagusia mexikarrak Mendebaldeari subjektu gisa eusteko asmo ez guztiz irekian –marxismoaz eta egilearen irekitze- eta sentsibilitate-narrazioez bustita dago– dago (Spivak, 2009: 43). Batez ere, Revueltasek berak *errealismo dialektiko* mexikar gisa definitu zituen aurreuposatuetatik; bertako literatura indiarraren akulturazioaren eta asimilazioaren mugen barruan kokatzera kondenatu duen armazoi epistemologikoa, horiek izanik unibertsaltasun utopiko bateko zati izatera irits litekeen mestizajerako urrats nagusiak. Puntu horretan hainbat gai sartzen dira: indiarrari kontzientzia proletarioa emateko aukera –hori *nekazari* izateak ekarriko luke–; mito eta iragan prehispanikoarekiko lotura ezartzea, nortasun homogeen bat eratzeko bitarteko gisa; etniatik, arrazatik edo klasetik harago kokaturiko subjektu iraultzaile bat izateko grina, eta Samuel Ramosek, Octavio Pazek eta makineria nazional, kultural edo kontrakultural guztiak dagoeneko aktibaturiko mexikartasunaren zenbait kategoria gain-kosifikatzea.

Lehenago, bi eleberrien atzean legokeen nolabaiteko etorkizun-proposamenaz hitz egin dugu. Ildo horretatik, Arguedasen eleberriak utopia baterako ateak irekitzen ditu, baina utopia hori ez da «síntesis conciliante sino pluralidad múltiple [...], que no abdica frente al turbador anhelo de ser muchos seres, vivir muchas vidas, hablar muchos lenguajes, habitar muchos mundos» (Cornejo Polar, 1994: 217). Eta hortxe dago *dialektika negatiboarekiko* aldaera-izaera, sintesiari jaramonik egin ez eta, kasu guztietan, indar handiagoko, negatiboagoko eta saboteatzaileko<sup>1</sup> «egiaren» lekutzat jotako gizarte-eskalako lekuri baxuenean kokatzen den forma anitzeko pluraltasuna kontrajartzen duena. Bestalde, Revueltasen lanak, eta hark landaguneaz eta *lunpenproletariotzaren* aldaera gisa antolaturiko bertako indiar-nekazariez duen ideiak, eta ekintza horrek berekin dakartzan auresupostuak, desberdintasunarekin, bestelakotasunarekin eta kolonialitate eta aberrien osaera prozesuek ekarritako marjinaltasun motekin egin beharrekoari dagokionez, klase-kontzientziak zeharkaturiko etorkizunera garamatza, eta hor, azkenik, sobran daude indiar-indigenak.

Eta horixe, seguruenik, marxismoaren arazo bat da, oro har, eta proiektu nazionalena, bereziki. Eta Revueltasek, zalantzarik gabe, landaguneko subjektua eta haren barne-barneko gatazka guztiak –alderdi hori berez da ekintza arriskutsua homogeneotasunarentzat– irudikapenaren mapan jartzen baditu ere, litekeena da Arguedasen edo Rulforen parean beste maila batean geratzea; Hannah Arendten iritziak, egile gisa, erreproduzitzailerik bilakatzea eta haren ekintza «está tan indisolublemente ligada al flujo vivo de actuar y hablar» (Arendt, 1998: 210-211) halakoa izatea, eta irudikapen-premia jakin batzuei erantzutea (Herlinghaus, 2004: 21). Premia horiek Marxen diskurtsoetik, dialektikatik eta klase-esentzialismotik urrunen dauden diskurtso

## OHARRAK

1 | «Saboteatzaile» terminoak «kritika sabotaje gisa» hartzen duen Manuel Asensoren (2011) ideia berriari egiten dio erreferentzia. Gaingiroki, valentziar teorikoak dio testu kultural eta literario orok erabat modelatzen duela mundua errealtatearen eta esperientzien ikuspegi gisa aurkezten dituen oinarriko silogismoetatik abiatuta. Egitura horretan, haren nozio kritikoak bizitza baldintzatzen duten makineria performatiboak saboteatzea proposatzeaz gain, egitura horretan beren lana egiten duten «makina saboteatzaileak» daudela onartzen du. Arguedasen eleberria haietako bat litzateke, zalantzarik gabe.



marxistarenaklirateke. Horrek, kondena hori ondorengobesteliteratura batzuetan nola errepikatu den hausnartzera garamatza. Literatura horiek Revueltasen eleberri enblematikoaren zordun lirateke hainbat modutan, eta horrela, itxita geratuko litzateke nolabait gatazka. *El luto humano* laneko indigenei buruzko pasarteetan oso argi geratzen dela dirudi: dagoeneko ez dagokien garai bat bizitzen ari dira.

Revueltasen eleberrian, grebaren unean agertzen da indar handienaz irudikapen-muga, narratzaile-interpretaren eta Natividad pertsonaiaren (*nekazari ilustratua*) barneko ahotsarekin duen konplizitate une horretan. Une horrek aurkako alderdia du *Los ríos profundos* lanean –«El motín»–, subjektibotasun- eta irudikapen-komplexuen berri emateko balia daitekeen gertakari gisa. Arguedasek ordena hauts dezakeen eta izaki anitzetan sartzeko gai den matxinada planteatzen du, kontzientzia-aniztasunaren eta haren arraza- edota kultura-marjinen gaineratik pasako litzatekeena. Hona hemen horri buruz Asensik duen ikuspegia:

Lo importante no es ser blanco, mestizo o indígena, sino la posición ideológica [...]. En el modelo de mundo creado por Arguedas no hay racismo, no hay destino biológico, sino tomas de posición en función de un *pathos* y un *ethos* que se sitúan en el nivel de la sensibilidad. Dicho de otra manera: Arguedas falla a favor de la ideología (Asensi, 2012: 66-67).

Baina Revueltasek, grebaren pasartean iraultza ondorengo desengainuari, nekazaritza-erreformaren porrot agerikoei eta estatu homogeen bat eraikitzeke prozesuak jada erakutsitako pitzadura guztiei kontrajartzen diena, azkenik, nolabaiteko utopia da. Greba porrot gisa ikusi behar da, ez bakarrik menderatzaileen eta haien gizarte-irudikapen ondorioen aldetik, baizik eta indiar-indigenaren presentziak narratzailearen eta haren pertsonaia heroikoaren subjektibotasunean sortzen duen hunkipenagatik ere. Pasarte hori baino lehen ere, subjektibotasun indigena modu totalizatzailean kontatuta dago: indigenak inolako botererik ez duten presentzia ilun gisa ikusten ditu.

No eran [n]i sanguinarios, ni crueles, ni rebeldes, antes apagados, tristes, laboriosos, pacíficos y llenos de temor [...]. Constituían una fracción de un numeroso pueblo abatido y aniquilado por los gobiernos y que, con miedo tal vez de nuevas persecuciones, optaban hoy por la sumisión y la humildad (Revueltas, 2009: 81).

Hemen ez ditugu zalantzan jarri nahi egileak indigenei loturiko errealitatea deskribatzeko erabiltzen dituen gaiak, kontzeptuak eta metaforak, zeinek obren subjektibotasun «mestizoaren» inguruan egiten duten hegan; aitzitik, egile-narratzaile horrek berak subjektu horiekiko ezartzen duen muga azpimarratu nahi dugu. Hainbat irrikaz jantzitako mestizoengan eta kreolengan, ahots hori *sartu* eta *irten*

---

egiten da islatu zein moldatu egiten duen nolabaiteko kontzientzia bilakatuta, baina indigenak zeharkaezinak dira, eta sentitzen dutena eta gertatzen zaiena behaketatik eta interpretaziotik baino ezin da antzeman edo igarri. Are gehiago, badirudi ez direla *gizakiak*, eta haien historia giltzaz itxi dutela; behin-behineko bizitza dutela, edo mexikar esaera zahar batek dioen moduan «de prestado» bizi direla. Paradoxa dirudien arren, beren miserian, *hieroglifiko* gardenak dira. Eta nekatuta daude –dio narratzaileak– *lehen* izan zituzten borrokez.

Greban, indigena «pobre» horiek «eskirol» gisa erabiltzen dituzte, engainatu eta mozkortu egiten dituzte. Hurrengo paragrafoan primeran ikus daiteke nola laburtzen den indigenen izaera historikoa eta existentziala egitura erretoriko batetik, nahiz eta narratzailearen ahotsak bestelakotasun gisa duten estatutuarekiko inposaturiko muga gainditu ez:

Antes de quince días presentáronse unos cuarenta indígenas, los pobres completamente borrachos. Habíanles ofrecido primero tequila y mezcal, pero lo rechazaron a cambio de alcohol puro. Las grandes copas de alcohol asestaban una puñalada certera, vertiginosa, y los indígenas pusiéronse dulces e incomprensibles al primer golpe y muy tristes, mirando con agradecimiento humillado y tierno al enganchador que de tal modo los regalaba [...]. Les daba tristeza pero a la vez una cólera, a medida que el alcohol penetraba. Eran el rencor y el sufrimiento. Aparecían de súbito sus dolores, y la impotencia terrible frente a eso pesado, oscuro y antiguo, les humedecía los ojos, y quién sabe por qué, siempre de agradecimiento, de sumisión y de súplica. Otra copa más (Revueltas, 2009: 158).

Aldi berean izugarri eta, bere erara, eder den paragrafo hori eleberriaren eta subjektibotasun indigenaren arteko harremanaren espektro zabalago batera proiektatuz gero, irudikapen subjektiboaren mugatik honantzago egoten jarraitzen du, batzuetan ertzean mugitzen den arren.

Eta, puntu horretan, gaia zera da, zehaztea zer mekanismok eragingo lukeen pluraltasuna edo aniztasuna txertatzerakoan, egiaz, benetako subjektu enuntziatzailea estaliko lukeen oskola ezartzea. Irudikapen-efektu edo ugaritasun-efektu dei geniezaioke horri. Logika horren ildotik, bere testuinguru geokulturalak eta historikoak inposaturiko irudikapen-mugak gainditzen ez dituen egilea amaiera objektibagarri baterantz ariko litzateke lanean, «gizakien gaiei» buruko kontakizun txikiak itzuliz, transkribatuz eta eraldatuz, mota guztietako material, dokumentu eta bitarteko bilakatzeko eta haiei existentzia gain-kosifikatua emateko (Herlinghaus, 2004: 21). Nolanahi ere, beste batzuk muga horiei ezikusiarrena egiten saiatuko liriateke; haien esperientzia ez da «meta mundana y objetivizadora» baten ondorio, eta

[e]stos narradores nos hablan desde los trasfondos y los patios interiores

de las exclusiones modernas —divisiones entre representación y praxis, reificación y pertenencia, razón ordenadora e imaginación impura, reificación y pertenencia, en una palabra, la división entre *Historia* y los *relatos menores* (Herlinghaus, 2004: 21).

Hala ere, Revueltas Rulfogandik zertxobait, eta Arguedasengandik nahikoa, desmarkatzen duen banaketa horrek erabat funtzionala badirudi ere, arazo bat planteatzen da aukera hori barneratzean. Izan ere, literatura-sistemaren eta historiografiaren hegemoniak, estatismoak, botere manipulatzaileak eta izaera lineal eta ordenatuak, Ranajit Guharen aburuz (Guha, 2002), eta ondo asmatuta, *diskurtsoaren ordena* den horrek, subjektu *arrotz* horiek kultura heroikoa bilakatzeko joera dute. Eta heroikoa batek, badakigu, botere guztiak galtzen ditu haren balentriak kontakizun bilakatzeko.

## Aipatutako lanak

- ADORNO, T. (1975): *Dialéctica negativa*, Madrid: Taurus.
- ARENDT, H. (1998): *La condición humana*, Barcelona: Paidós.
- ARGUEDAS, J. M. (1998): *Los ríos profundos*, Buenos Aires: Losada.
- ASENSI, M. (2011): *Crítica y sabotaje*, Barcelona: Anthropos.
- ASENSI, M. (2012): «Los CSI y la guerra de Arguedas (en torno al silogismo del discurso en el pensamiento e la crítica como sabotaje» en Bolognese, Ch.; Bustamante, F.; y Zabalgoitia, M. (eds.), *Éste que ves, engaño colorido... Literaturas, culturas y sujetos alternos en América Latina*, Barcelona: Icaria, 57-82.
- CORNEJO POLAR, A. (1996): *Escribir en el aire. Ensayo sobre la heterogeneidad socio-cultural en las literaturas andinas*, Lima: Horizonte.
- CORNEJO POLAR, A. (1996): «Una heterogeneidad no dialéctica: Sujeto y discurso migrantes en el Perú Moderno», *Revista Iberoamericana*, vol. LXII, nº 176-177, 837-844.
- CORRALES, E. (2011): «Julio Ortega: en la obra de José María Arguedas habla el peregrinaje del español andino», *El Porta(l) Voz. Autorrelato de la cultura iberoamericana*, <<http://www.lettralia.com/253/entrevistas01.htm>>, [01/05/2012].
- GUHA, R. (2002): *Las voces de la historia y otros estudios subalternos*, Barcelona: Crítica.
- HERLINGHAUS, H. (2004): *Renarración y descentramiento: mapas alternativos de la imaginación en América Latina*, Madrid: Iberoamericana.
- LÓPEZ PARADA, E. (1999): *Una mirada al sesgo. Literatura hispanoamericana desde los márgenes*, Madrid: Iberoamericana-Vervuert.
- REVUELTAS, J. (2003): *El luto humano*. México, D.F.: ERA.
- ROWE, W. (1996): *Ensayos arguedianos*, Lima: SUR.
- SLICK, S. (1983): *José Revueltas. Twayne's World Authors Series*, Boston: Twayne Publishers.
- SPIVAK, G. (2009): *¿Pueden hablar los subalternos?*, Barcelona: MNAC/MACBA.